

zuzendariari

(0034) 943 300 222



zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Euskal gotzainak

Kepa Baraňano • LAUDIO (Araba)

Euskal gotzainetarik lauk eta hainbat apai-
zek bakea eta giza eskubide guztien alde
egin dute, berriz ere, indarkeria guztiak eta
askatasunaren kalteko neurriak gaitzesten
dituztela. Satan balira bezala agerraraziko
dituzte, horregatik.

Espainian bestelako elizgizonak maite
dituzte, aldi berean gudagizon direnak hain
zuzen. Sotanapean iskilua daramatenak,
alegia. Francoren garaian bezala, «honek
gurutzada baten izaera guztiak ditu; nola
edo hala bai prentsan bai irratan, irakasto-
kian nahiz eskoletan, dotrinan zein pulpi-
tuan, Jaungoikoa eta Espainia bat eta bera
direla eta Espainiaren aurka dagoena Jaun-
goikoaren aurka dagoela oihu eginarazi be-

har da». Garai hartan —horretan hobeki—
«estatu espainiarrari leialtasuna» zin egin
behar zioten gotzainen tankerakoak nahi
dituzte gaur egun ere.

Euskal herriak badaki, Sabin Aranak zio-
enez, «egun ere, zuzentzaren erresumaren
alde lan dagiena salatu eta kondenatu egin-
go dutela». Euskal herriak badaki indarke-
riak ahul bihurtzen gaituela.

Donostiak bazuen
museo bat

Joseba Aurkenerena • URRUÑA (Lapurdia)

Donostiarra naizen arren, badira 15 bat ur-
te Donostiatik kanpo bizi naizela. Txikitan,
oso maiz, aitak San Telmo museora erama-
ten ninduen, eta, egia esan behar badut, be-
ti hunkitu nau. Hilarri eder ugariak, sorgin


gaiztoen aurkako kutunak, euskal emaku-
meen burukoak, Altxoko Erraldoiaren jan-
tziak, Serten pintura gogoangarriak... Ba-
zen han zer ikusi eta zertaz gozatu. Donos-
tiak bazuen museo etnografiko-artistiko
ederra, eta nire nortasunean eta nire forma-
kuntzan eragin handia eduki zuen.

Duela astebete, Zuberoako lagun bat
ekarri nuen San Telmo museoa ikus zezan.
Prentsan irakurria nuen duela bospasei ur-
te berriua izan zela, baina normalean herri
honetan berrikuntza gehienak onerako
izan direnez, nire gaztaroko museo berri-
ta hobetua espero nuen ikustea. Sartu be-
zain laster ikusi nuen zein oker nengoen.
Han ez zegoen ez museorik ez deus, koadroak
nonahi eta bost bat hilarri klaustroan.
Hariduraz beterik, ezin sinetsiz, ezker-es-
kuin begiratu nuen, goiko solairura igo nin-

tzen eta han ere deus ere ez, koadroak eta
koadroak pareta guztietan. Han ez zegoen
ezer garai bateko museo etnografikotik, ai-
paturiko hilarri eskasak eta Granadako az-
ken erregearen ezpata izan ezik. Bertan gal-
detu ondoren jakin nuen objektu gehienak
enbalaturik eta gorderik gelditu zirela az-
ken berrikuntzaren garaian eta gaur, inork
ezagutzen ez duen motiboa dela eta, horre-
la jarraitzen omen dutela. Hau lotsa!

Koadroak ondo daude. Nik ez daukat
ezer horien kontra, baina bada aski tokia,
koadroekin batera kaxetan ahaztutako guz-
tia berriro bere tokian ezar dezaten. Donos-
tiarrok eta euskaldun orok San Telmo mu-
seoaren beharra daukagu gure seme-ala-
bek Herri honen iragana ikusiz eta ezagutuz
geroa egin dezaten. Itzul iezaguzue gure
museoa!

montxo



galdeiozu... ?

hirusta

Aitziber Perez de Karkamo

XABIER
USABIAGA

Txirrindulari ohia

Nortzuk ikusten dituzu
faborito Tourrean, Lance
Armstrongez gain?

Iñaki Peña (Bilbo)

Estatubatuarrak bere maila ematen badu, baina
baita bere gorena ematen ez badu ere, ez dut
uste inork garaipena (laugarrena) kenduko dio-
nik. Horrenbestez, beste hautagaiek podiumera-
ko lehiara mugatu beharko dute, nahitaez. Jose-
ba Belokik beste koska bat gainditzeko aukera
peregabea du, eta Igor Gonzalez de Galdeanok
podiuma ezagutzekoa. Sevilla eta Botero aukari
latzak izango dira edonorentzat, baita Christop-
he Moreau ere. Aspaldian ikusi dugun Richard
Virenquerik onena ikusiko dugulakoan nago, eta
Vinokourovrek eta Unai Osak ere merezi dute
konfiantza pitin bat.

Ekainaren 11tik aurrera **Jon Maia • Euskal Herriko aurrekulari
txapelduna** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

Ziegetako oihuen aurrean,
isiltasuna

Egunkariak ez dakarte iragan astean
atxilotutako errugabetasun-presun-
tziorik gabeko bi lagunak torturak pai-
ratu izana salatu dutela. Komisarian inkomu-
nikaturik egondako egunetan ustez polizia-
ri esandakoa jasotzen duen artikuluak ez du
esaten polizia izan dela egun horietan guztie-
tan errugabetasun-presuntziorik gabeko bi
euskaldunekin egon den bakarra; ez da kon-
fiantzazko abokaturik egon, ez medikurik, ez
seniderik. Hemendik 20 urtera akaso, egun-
kari berak labor bat plazaratuko du. Polizia da
errugabetasun-presuntzioa duen bakarra.

Irrati esatariak azkar egin ditu albistegiari
egokitu zaizkion sei minutuak. Esan ohi da ez
dela komeni zifra gehiegirik ematea horrela-
ko informazio-tarteetan. Ez diote horri eran-
tzuten, baina, ikus-entzunezko enterean zu-
zendaritzak TATek (Torturaren Aurkako Tal-

dea) jakinarazi dituen zifrak ezkutatzeko egi-
ten dituen ahaleginek: hiru egunetik behin
euskaldun batek torturak eta tratu txarrak
pairatzen ditu polizia-etxetan. Berriemailerik
ez dago komisarietan. Ez dago errealtate ob-
jektiborik. Ertzaintzak ere ez ditu kamerak
jartzen ziegetan.

Isiltasunaz baliatzen dira ziegek botatzen
dituzten oihuak estaltzen saiatzeko. Ziegan
dagoenak dena emanen luke laguna dagoen
ziegatik datozen min garrasiak ez entzutea-
rren. Isiltasuna, isiltasunaren etsai bihurtuta.

Ekainaren 8an isiltasuna izango da eran-
tzunik indartsuena. Isiltasunak hartuko ditu
Bilboko kaleak. Isiltasuna izan baitaiteke isi-
lik mantendu nahi gaituenari eman diezaio-
kegun erantzunik onena. Tortura guztion
erantzukizuna delako. Guztion erantzukizuna
da isilik ez geratzea.